

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

FINANTZA ETA AURREKONTU ZUZENDARITZA

Ondare Zerbitzua

Arabako Foru Aldundiaren Eskalmendiko haztegia ustiatzeko hitzarmena izenpetzeko deialdia

XEDEA

Eskalmendin (Arratzua-Ubarrundia) dagoen "Mendi haztegia" izeneko lursaila, zeinak 64.000 metro koadro baititu eta zeina, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, haztegia izan behar baita.

EBAZPENEA

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 4ko 41/2020 Erabakia.

EPEA

10 urteko hasierako epea, bi aldiz luza daitekeena, bost urterako aldi bakoitzean.

LIZITAZIO MOTA

Urteko 14.800,00 euro, BEZa aparte. Lizitatuzaileek kopuru hori edo handiagoa eskaini behar dute.

INFORMAZIOA ETA AGIRIAK ESKURATZEKO MODUA

Baldintza agiria interesdunen eskura dago Arabako Foru Aldundiaren webgunean (www.araba.eus), eta beste hauetan ere:

– Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko Erregistroa eta Informazioa (Samaniego 14, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz).

– Mendi Zerbitzua (Diputazio kalea 13, Vitoria-Gasteiz).

– Ondare Zerbitzua (Samaniego 14, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz).

Hitzarmenaren baldintzekin eta ezaugarri teknikoekin lotutako informazioa eska dakiokete Mendi Zerbitzuari (Diputazio kalea 13, Vitoria-Gasteiz).

Horrez gain, Ondare Zerbitzuak baldintza agiriri eta proposamenak aurkezteko prozedurari buruzko informazioa emango dio eskatzen duenari, bulegoan (Samaniego 14, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz), telefonoz (945.18.18.18) edo posta elektronikoz bidez (patrimonio.finanzas@araba.eus).

ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Proposamenak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza 5, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz). Posta bidez ere bidal daitezke, administrazio publikoen hitzarmenei buruzko araudian zehaztutako moduan.

Horretarako, 30 egun naturaleko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguneko arratsaldeko ordu biak eta hogeita hamar arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak. Azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduna izango da proposamenak aurkezteko azkena.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 10a

Ondare Zerbitzuko burua

LUIS ALBERTO VALDOR FERNÁNDEZ